

B

BARREN

TOKIKOM

Onenen artean

Maite Maiora, korrikalaria





Santa Ana kalea, 7
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 011



- **16 URTETIK AUERRERA AZTERKETA TEORIKOA GAINDITZEKO AUKERA**
- **IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**
- **ORDENAGAILU BIDEZ TEST EGITEKO AUKERA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**

BARRENen aldeko **BONOAK** erosteko:

- **BARREN** astekarian (Nafarroa plaza)
- **Elgoibarko Izarran** (Ubitarte 4)
- **E-postaz eta telefonoz:**

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com



Bonoa erosten duten guztien artean,
Belaustegi jatetxean bi lagunentzako
dastatze-menua zozketatuko dugu

BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaude?
Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan
estimatuko dizugu. Eskerrik asko!

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



Ni ere banaiz
BARREN!



II. Debarrena BTT martxa

Aurten ere antolatuko dugu II. Debarrena BTT martxa Elgoibarren. Oraingoan udako beroa alde batera utzita udazkeneko lokatzarekin pedalak ganoraz astindu beharko dituzte parte-hartzaileek. Urriaren 12an goizeko 9:00etan Mintxetan emango diogu hasiera ekitaldiari.

Herrian antolatzen den mendiko bizikleta martxa bakarra da. Ez da martxa lehiakorra. Bi gauza uztartu nahi dira: kirola eginez, BTTa modu osasungarri batean erabiltzea eta Debarrenenako parajeez gozatzea.

Mota horretako probetan parte-hartzaileen kiroltasuna eta lagunen arteko "pikeak" izaten dira aipatzekoak. Azken finean, kirolaz disfrutatzea da helburu nagusia. Horretarako, antolakuntzak bi ibilbide proposatzen ditu: bata, laburra, eta bestea, luzea. Laburrak 25 kilometro ditu, eta luzeak 45 kilometro. Bietan Debarrena bailarako parajeak izango dira ikusgai. Hala ere, aipatu beharra dago bi ibilbide horietako bat egin ahal izateko, sasoiaren egon beharko garelako. Eguna bera, baina, ez da martxako parte-hartzaileentzako bakarrik, umeez ere izango dutelako lekua. Izan ere, ginkana bat izango da haientzako.

Nire ustez, egun aproposa da zubi honetako lau egun horiek familian eta era ezberdinean pasatzeko. Bide batez, parte-hartzaileen artean zozketatuko den sariren bat irabaziz gero, aukera paregabea izango dugu beste egun bi jai hartzeko.



Iban Gonzalez

“Urriaren 12koa ez da martxa lehiakorra. Bi gauza uztartu nahi dira: kirola eginez, BTTa modu osasungarri batean erabiltzea eta Debarrenenako parajeez gozatzea”



**Ni ere banaiz
BARREN!**

Zergatik babesten duzu BARREN?

MARIA JESUS AZPIAZU

*“Etxeko egiten zaigulako,
gustura hartzen dugulako eta
herriko berrien berri ematen digulako
babesten dugu BARREN”*



SANTIAGORA, GURDIZ



Marina Furian gurdian jarrita, eta atzean, 'Vanda' zaldia, larrean.

Erromesa da Marina Furian, erromes bitxia eta ezohikoa garai hauetan. Apirilaren 25ean ekin zion Donejakue bideari, Venezian, eta Santiagora arte (Galizia), 2.400 kilometro inguruko bidea osatu nahi du zaldi-gurdiz. Artista da ogibidez, eta Vanda zaldia eta Joel txakurrarekin hasi zuen bidea. Joan zen eguenean iritsi zen Elgoibarrera, Deban bainua hartu ondoren, eta Nettoko aparkalekuan gaua pasatu ostean, Bilborantz jarraitu zuen bidaiak.

Ainara Argoitia

Makina batek ikusiko zenuten joan zen astean argazkiko emakume hau Elgoibarren. Marina Furian dauka izena, 53 urte ditu, veneziarra da (Italia), eta Donejakue bidea egiten ari da, Vanda izeneko zaldia eta Joel txakurra lagun hartuta. "Hiru animalia goaz, Santiago konkistatzera". Halaxe azaldu zion barixakuan BARRENI Marinak berak.

Apirilaren 25ean irten zen Veneziatik, eta kostaldeko bidea egiten dihardu. 2.400 kilometro inguruko bidea. Nettoko aparkalekuan pasatu du gaua, eta atertu zain dago bideari ekiteko. "Zaldiak asko sufritzen du eguraldi

Bidean aukera duen aldiro, txotxongiloak atera eta Veneziako historiako pasarteak kontatzen ditu

honekin, eta zain gaude". Arbola bati lotuta dauka Vanda, 8 urteko zaldi zuria, jatorriz hungariarra. "Espainian badago animalientzako jana, baina genetikoki eraldatutako

produktuak erabiltzen dituzte jateko hori egiteko, soja transgenikoa-eta. Nik ez dut hori nahi nire animalientzako", dio Marinak, zaldiak garbi-garbi laga duen lursailari begira. "Zaldi ona da. Lasaia, baina, aldi berean, ausarta. Eta jatun ona, jakina".

8 urte ditu espedizioko hirugarren lagunak ere. Doverman beltza da Joel, "zaindari ona, eta esaneko txakurra". Segurtasuna ematen diola adierazi du jabeak. Emakume bakarrentzat bidaiatzea gogorra dela aitortu du, baina bidaiatzeko lagun txarrarekin baino bakarrik nahiago duela nabarmendu du segidan. Bigarren aldia da Donejakue bi-

dea egiten duela. Lehenengo aldian ere, 2000. urtean, gurdian egin zuen bidea, baina oraingoaren aldean gurdi "astuna" zela adierazi du. Egurrezko gurdia zen, burdinezko gurgilduna. "Ezkonberriak eramateko erabiltzen zen gurdi horietako bat zen, ikusten duenez", adierazi du gurdian daukan argazki bati begira jarrita.

Xakobeo urtea izanda, Santiago Egunerako (uztailaren 25a) iritsi nahi zuen Santiagora Veneziatik irten zenean, baina bistan da atzerapen handiarekin doala. Paisaia izugarri polita dela dio, eta jende "atsegina" topatu duela bidean. "Krisiak Europa osoa jo du, baina hala ere, jendea oso eskuzabala da nirekin, baita Polizia bera ere", nabarmendu du. Ez du presaka dabilenaren itxurarik. Atzo, eguna [hilak 16], Deban bainua hartu zuela esan du. "Benetan hontza zegoen ura". Egunean, 30 kilometro inguru egiten ditu, baina ez zaio zaldia lar eustzea gustatzen. "Gurdiari tiraka lan handia egin behar du".

Amerika mendebaldera artzai joandako euskaldunek erabiltzen zituzten gurdien antzekoa du Marinak, marrazkiz eta kolore biziz apaindutakoa. Erosotasun gutxi, baina ilusio handia. Gurdiaren alde batean, *Cammino* (bidea) idatzita dauka, urrutitik ikusteko moduko hizkietan, eta haren ondoan, babeslearen logoa. Babeslea ere baduelako: Venetoko eskualdea. Beste aldean, berriz, hiru marrazki koloretsu ageri dira. Bere jaioterriari dago-kiona, Santiagoren omenezkoa eta Gibraltarko haizarena. "Jerusalemdik Santiagora erdi bidean dago Venezia, eta garbi neukan Donejakue bidea osatu beharra neukala. Gibraltarrera ere iritsi nahi dut, eta hor dago hori ere", azaldu du.



Artista baten ibilerak

Gurdian han-hemen pilatuta dituen gauzez gain, Marinak bere antzezlanetan erabiltzen duen atril modukoak, berak egindako larruzko figurek eta sabaitik eskegita dituen txotxongiloek piztu dute kazetariaren arreta. Ogibidez eta afizioz artista da Marina, "XVI. mendeko komedianteen ondorengoa" bere hitzetan. Garai hartako artistak miresten dituela dio harro, eta haien omenez hainbat ikuskizun eskaini ohi ditu bidean. Antzetzoki txikia atondu, txotxongiloak hartu eta Veneziako historiako hainbat pasarte kontatzen ditu, bidean aukera duen aldiro. Ohitua dago jende aurrean aritzera, eta nabari zaio

bere jardunean. Irribarre erraza du, eta berba-jario handia. Bistan da artista dela. Bat-batean, orain hamar urteko pasadizo bat ekarri du gogora, eta kantuan hasi da, erreparorik gabe. "Donejakue bidea lehenengoz egin nuenean Santiagon bertan abestu nuen kanta hori. Hara iritsi nintzenean ehunka lagun zeuden plazan, eta goi batera igo eta kantuan hasi nintzaien ni. Halako batean, gizon bat gerturatu zitzaidan, harrিতuta. Ezin zuen ulertu nola nekien nik kantu hura horren urrutikoa izanda. Azkenean biok batera amaitu genuen kantuan. Gero aitortu zidan Santiagoko abesbatzako kidea zela bera", gogoratu du.

1.500 kilometro baino gehiago egin ditu dagoeneko, eta milaka dira bidaian pilatutako bizipenak. Batzuetan nekeak estu hartu arren, ilusioz gainezka dagoela nabari zaio Marinari. Hari begira, bueltakoan pentsatzen jarri da kazetaria. "Gurdian egin behar al duzu itzulerako bidea ere?", galdetu dio. "Ez, ez", erantzun du irribarre zabal batekin. Lotuta dauka itzulera. Santiagora iristen denean, kamioi bat izango du zain, eta han itzuliko dira hiru lagunak, azken hilabeteotan garraio-bide eta etxe funtzioak bete dituen gurdiarekin batera.

Marina Furian, makurtuta, antzezle lanetan.



Gidari hasiberrientzako abiadura muga 120 kilometro ordura handitzea onartu du Espainiako Kongresuak.

Bat zatoz gidari berrientzako abiadura muga handitzearekin?



Jorge Kortaberria
46 urte, tailerreko langilea

Ondo ikusten dut. Gaur egungo autoak lehenagoak baino indar handiagoa dute, eta errepideak ere gero eta hobeak dira. Arduraz gidatzen bada, ez zait gehiegizkoa iruditzen. Leku batzuetan 80 kilometro ordura joatea abiaduran joatea arrisksuagoa da.



Txerra Gurrutxaga
59 urte, langabetua

Oso ondo iruditzen zait. 80 kilometro ordura edo 120ra joatea antzekoa dela uste dut. Gaur egungo autoekin ez dago diferentzia handirik. Nire ustez, errepide batzuetan, autopistan esate baterako, 80 kilometro orduko abiaduran joatea arrisksuagoa da.



Braulia Moreno
55 urte, etxeakoandrea

Ondo. Autopistan, adibidez, poliki joaten denak arrisku gehiago sortu dezake. Dena dela, autoeskolatik irten berritan 120 kilometro orduko abiadura gehiegizkoa izan daiteke. Hasieran denok ibili izan gara nahiko larri! Garrantzitsuena kontu handiz eta arduraz gidatzea da.



Sonia Vazquez
36 urte, kutzazaina

Ez zait ondo iruditzen, eta arrisksuegia dela uste dut. Autoeskolan azterketa gainditzeko irakasten dute, baina autoa ondo gidatzen gerora ikasten da, eguneroko jardunean. Hasieran, 80 kilometro orduko abiadura ere handia egiten zizaidala gogoratzen dut.


ZURE DEFENTSAK INDARTU!

eta ahaztu gripea

Sistema inmunitarioa modu naturalean indartzeari buruzko hitzaldia
hizlaria:
JUAN SERRANO GANDÍA
Biokimikaria
DIETÉTICOS INTERSA, S.A.

EGUNA:	urriak 7, osteguna
ORDUA:	19 h.
TOKIA:	SURYA BELARDENDA San Francisco kalea, 25 Egoibar

DOAN

Mesedez konfirmatu asistentzia Surya belardendan
edo 943 74 25 34 tel.



B

BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri
ezazu
zure
publizitatea





CORDON
VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 749 670

DEKORAZIOA

Kanto eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutua: eguzi, aluminio, PVC
Pisua onkora

GRUP
PVALMAY



Sigmako zubira sarrera debekatzeko jarri zituzten piboteak ez dira batere txukunak: “Trafikoaren norabidea berrantolatu zutenean Sigmako zubitik herrira sartzea debekatu egin zuten. Pibote batzuk jarri zituzte zubi sarreran, Debako aldetik etortzen diren autoak herrira ez sartzeko. Baina, noiz arte utzi behar dituzte pibote horiek horrela? nire ustez zerbait txukunagoa egin behar lukete, eta ahal dela, herrirako sarrera baimendu. Mila esker”.



King-Kong atzeko baranda apurtuta dago: “Noiz konpondu behar dute King-Kong atzeko baranda? Aspaldi hasi ziren herriko barandak konpontzen, baina King-Kong atzekoa oraindik apurtuta dago. Neskatxa bat ibaira erori zen arren, oraindik ez dute konpondu. Zinta bat jartzea ez da nahikoa. Dagokionari eskatu nahi nioke lehenbailehen konpondu dezala. Mila esker”.



Txalo bat Avar taldeari auto telegidatuen txapelketa antolatzeagatik: “Giro bikaina izan zen domekan Mendaroko Ospas Gainen. Avar taldeak auto telegidatuen txapelketa antolatu zuen, eta jendetza handia batu zen. Ikuskizun polita eskaini zuten, baina ikuskizunak berak baino gehiago poztu gintuen bazter utzitako leku hari erabilera bat eman zaiola ikustek. Oraindik han daude harmaila zaharrak, baina gutxienez Ospas Gainek beste bizitasun bat du orain.



Zuen kezak, gaidetak edo txaloak bidaltzeko: barreri@elgoibarkoizarra.com 943 744 112


I. URTEURRENA

EUGENIA JUARISTI SAN MARTIN

(Sebastian Ansolaren alarguna)
“Mausitxa baserria”



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



2009ko urriaren 1ean hil zen 79 urte zituela. I. urteurreneko meza, zapatuan, urriak 2an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Lerun Txiki: zuhaitz handi ala industrigune beldurgarri?

Morterika basoko zuhaitzik zaharrena Lerun Txiki baserri ingurukoak dira. Kuriosoa da, baina Morterika babestuta egon arren, lasaitasuna apurtuko dien makina bat noiz pasako zain daude hango zuhaitz zaharrenak. Babesteko premian ikusten ditugu etxe inguruko arbolak, erreka aldekoak eta etxearen hegoaldeko mendian daudenak. Ea behingoz bakean uzten duten leku magiko hori! Gauden garaietan proiektu zahar horiek ez daukate lekurik.

Urteen poderioz egin dira arbola horiek osasuntsuak eta ederrak. Haritz horietako batzuk Gerra Karlistan bizirik iraun zuten, eta, orain, gizakion lukurre-riagatik zerrauts bihurtzeko arriskuak nazka ematen digu.

Indarra dauka bazter horrek. Eman-kortasuna ikusten da etxe inguruan, eta basora sartzeko ate berezia da, bidexkatik joanda. Herritik gertu horren natura basatia ez da maiz ikusten gaur egungo Elgoibarren. Dena poligono bat egiteko! Pabiloi berriak egin aurretik, hutsik dauden pabiloiak betetzeak eta leku lasai eta ederrak errespetatzeak lehentasunezko politika izan beharko luke.

Okil Beltzak ☞

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta,
Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Justo
Arriola

Ipurdi boteretsuak euren tronuetan estutzen hasiak dittuk.

Azken egunetako plantak eta agindutako bortxaketak eta kartzela zigorrak dittuk horren seiñale bortitza.


Orainguan, baiña, autodeterminazio indibidualaren gaiñian berba egitia nahi dixat, geure gorputzaren plazerra eta estasiaren eskubidiari dagokiona.

“Zein dok Estatu millaka urtian erabili dan sendabedar hau debekatzeko?”

Uzta biltzeko garaixan gauaz, eta kalamua landatziagaittik Poliziak gaztiak uzatzen dabixaz. Zein dok Estatu millaka urtian erabili dan sendabedar hau debekatzeko? Gure osasunagaittik dala? Bai zera! Alkoholzale “helduen” bedarzialien kontrako jazarpenari planto egitteko ordua dok. Memokrazia hau maneiatzen deben mafiak ateratzen juek onura debeku politikarekin: bankarixak diru pillia garbitzen, gerra eta errepresiorako aitzakia, heroina afghaniarra OTANeko hegazkiñetan ekartzen...

Ez dok kontu berrixa. Zer nahi jua Elizak belaulaldiz belaulaldi pasautako jakintza jua emakumiak -bedarretan jantziak- erre zittuanian? Kontrol sozia eta bilddurra hezurmuiñeraiño sartzia. Jakiña, pulpituetatik botatako madarikazieuk jai jaukaten naturaren indarrekin bat egitten zaxixenekin.

Ama Lurrak eskaintzen dittun landariak erabillera egokiren bat jaukek, baiña, hi, informazio zehatza eskuratu egik alde zurretik, badaezpada. Batez ere, kontzientzia zabaltzen daben substantzixak herri indigenen maitienak dittuk, “jainkuen okelia” diralako, eta ni bat nator eurokin.



Arkaitz
Irureta

Bai, uzta biltzeko garaixan gauaz, eta naturak emandakua albokuari lapurtzia libre dagok ilegalizaziuri esker! (ez bakarrik politikan).

Azken mendian debeku ugari egon dittuk drogen inguruan. Halere, agintarixek akatsak errepikauaz jarraitzen juek. *Dry-Law*-aren ondorixua estraperlua eta alkoholaren arazua areagotzia izan zuan. Holandan, droga batzuk legalak izanagaittik, arazua ez dok handitu, are gehiago, txikitu egin dok!

Gazte askorentzat debekua drogak probatzeko bultzakara dok, nahiz eta informazio gutxiko eta kalitate gabeko drogak izan.

Drogak legalak izan biharko lirake, horixe izango zuan gehiegizko kontsumuakin, mafiekin eta kalitate gabeko drogekin bukatzeko bide zuzenena. Gaiñera, alkoholak eta tabakuak bezela, zerga izugarriak eduki ahalko litzuzke drogak, eta estatuei interesa lekieke.

“Uzta biltzeko garaixan gauaz, eta naturak emandakua albokuari lapurtzia libre dagok”

Baiña diru beltza ezkututzen diaten bankuak, negozio errentagariaguetan inbertitu diaten enpresariak edo Intxaurrendoko batzuren negozioak zapuztuko litzuzke horrek, eta interesik ez dagok.

Beste mafia handi batek, Bayer-ek heroina patentatu jua 1896an. Mundu mailan irabazi gehixeneko negoziua dok farmazuetikena eta irabazixen zati bat biopirateriak, hots, *txaman*-ei lapurtutako jakinduriak ematen jaukek. Estatuak ez litzuzkie sendagaixak pribatizatu bihar, egun ziharo zatartuta dagolako asuntua, medikamentuak ez jaittuek sendatzeko egitten, bizitza guztian kontsumitzeko baizik!



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Atzerriko 23 ikaslek eta irakaslek astebete egin dute Elgoibarren, Mekaren jarduna ezagutzen

IMHK gizarteratze eta merkaturatze ikastaroak antolatu ditu

Austriako, Alemaniako, Danimarkako, Suediako eta Euskal Herriko 23 ikasle eta irakasle batu dira aste honetan Elgoibarren, Meka ikastetxearen jarduna ezagutzeko. Astelehenean egin zieten ongi-etorria udaletxean, eta astebez egon dira Elgoibarren. Meka ikastetxea Paintwork@europe proiektuan sartuta dago, eta horri esker, Europako hainbat ikastetxerekin elkarlanean aritzeko aukera dauka. Proiektu hori Bruselatik sustatu dute, Leonardo Da Vinci elkartearen bidez, eta Madrilgo OAPEE agentziak kudeatu du. 1993an hasi zen Meka Europako proiektuetan parte hartzen. Ordutik, urtero etorri izan dira atzerriko ikasleak Elgoibarrera, eta, era berean, Mekako ikasleek atzerrian egonaldiak egiteko aukera ere izan dute.

Lana bilatzeko ikastaroak

IMHK, bestalde, gizarteratze eta merkaturatze ikastaroak antolatu ditu, prestakuntza kualifikaturik ez duten pertsonentzako. IMHko arduradunek esandakoaren arabera, gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen lana bilatzeko errazatasunak emate



tea da helburua. IMHtik jakinarazi duteenez, ikastaro hauek indarra hartzen ari dira azken urteotan. Bigarren urtez, Caja Madrileko Gizarte Ekintzak lagunduta, 12 lagunek egin dute egiaztatze eta akabera eragiketen 88 ordutako

ikastaroa, eta IMHtik ikasle horien egoeraren jarraipena egiten dihardute, lan munduan barneratzen laguntzeko. Era berean, 20 lagunek hasi dute Enplegu bilaketa pertsonala garapena eta ekin-tzailatzaren bidez izeneko ikastaroa.

Itxi egin dute Gazte Informazio Guneak Kultur Etxean zeukan bulegoa

Gazte Informazio Guneak (GIG) Kultur Etxean duen bulegoa itxi egin dute, eta aurrerantzean Udaleko Gazteria Sailera jo beharko da GIGeko zerbitzuak jasotzeko. Zerbitzu hau, baina, etenda egongo da urrian, eta azaroan berriro jarriko dute martxan. Orain arte Elgoibarko Gazte Informazio Gunea Elgoibarko Izarra kultur elkarteak kudeatu du, baina orain Udalak hartu du zerbitzu horren ardura. Udala bere barne egitura antolatzen ari da, eta, besteak beste, Gazte Informazio Gunea Udalak zuzenean kudeatzea erabaki du. Ludoteka eta Gaztelekua, berriz, Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu orain arte moduan.



Berbia Greba Orokorra

Elgoibarren eragin txikia izan zuen UGT eta CCOO sindikatuek irailaren 29rako deitutako Greba Orokorrak. Herriko komertzioetan eta tabernetan normaltasunez egin zuten lan, eta industriguneetan ere jarraipen txikia izan zuen. Garraio publikoetan igarri zen greba, eta eguaztenean gutxieneko zerbitzuak bakarrik egon ziren martxan tren eta autobus zerbitzuetan. Espainiako Kongresuak onartutako lan erreforma salatzeko eta, aldi berean, iristear dagoen pentsio sistemaren erreformaren inguruan Espainiako Gobernuak estu hartzeko asmoz deitu zuten greba.

Irudia Motorren kontzentrazioa

Skull's Riders taldeko kideek gehiago espero zituzten, baina, eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, eta iaiz baino motozale gutxiago bildu ziren asteburuan motozaleen kontzentrazioan; guztira, 200 inguru. Aiastiara bidean moto istripuan hil zen Borja Uzuriaga gazteari omenaldia egiteko baliatu zuten eguna.



Sistema immunitarioari buruzko hitzaldia

Sistema immunitarioa indartze-ari buruzko hitzaldia antolatu du Surya belardendak urriaren 7rako. Norberaren defentsak nola indartu daitezkeen azaldu, eta gripearri aurre egiteko gomendioak emango ditu Juan Serrano Gandia biokimikariak besteak beste. Hitzaldia Surya belardendan izango da, 19:00etan. Informazio gehiagorako 943 742 534 telefonora deitu daiteke. Hitzaldira joateko interesa dutenek aurrez jakinaraztea eskertuko lukete antolatzaileek.

Tertuliak programarako boluntarioak behar dira

Elgoibarko Izarra kultur elkar-teak Tertuliak programarako boluntarioak behar ditu, euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenei laguntzeko. Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenekin elkartu eta euskaraz jardutea da programaren helburua. Egitasmo hori Udalaren babesarekin eta herriko euskaltegien laguntzaz antolatzen du elkar-teak. Interesatuek 943 741 626 telefonora deitu dezakete edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi.

Zirko tailerra bihar, Altzolan

Zubibai elkar-teak zirko tailerra antolatu du biharko. Zirkale elkar-tekoen laguntzaz, malabarista eta orekarien teknikak ikasteko eta probatzeko aukera izango da. Tailerra 16:30ean hasiko da, Altzolako frontoian.

Yoga ikastaroak Elgoibarren eta Mendaron

Santana Dharma eskolak yoga ikastaroak antolatu ditu. Elgoibarren eta Mendaron emango dituzte saioak. Interesatuek ondorengo telefonoetara deitu dezakete: 685 722 131 / 943 748 593.

Kirolari barren

MAITE MAIORA

Ez da denbora asko korrika hasi zela, baina onenen artean lekua egin du dagoeneko Maite Maiorak (Mendaro, 1980). Iker anaiak lagunduta, errepideko probetan neurtu zituen indarrak lehenengoz, baina mendiko lasterketetara jauzia egin du orain, mutil lagunak xaxatuta. Mendian lau proba jokatu ditu, eta lauretan zapaldu du podiuma. Gora begiratzen du, hala ere, eta Aizkorriko maratoia begiz jo du orain.

Ainara Argoitia

“Etxean aho batzuk
ixteko hasi nintzen
mendian korrika”

Noiz hasi zinen korrika?

Elgoibartik Mendarora etorri ginenean, orain hiru bat urte. Serio esaten dena, baina, orain pare bat urte. Elgoibarren gimnasia joaten nintzen zintan korrika egitera, baina aspertu nintzen lau hormaren barruan kirola egiten. Sallobentera joaten hasi nintzen orduan. Hasieran oinez joaten nintzen, eta jenderik ikusten ez nuenean korrika hasten nintzen. Apurka-apurka hasi nintzen joan-etorria korrika egiten. *Spinning*-en ere ibiltzen nintzen, baina konturatu nintzen ergelkeria bat zela hilean 35 euro pagatzea, astean birritan kirola egiteko. **Noiz erabaki zenuen korrika egitearena serio hartu eta txapelketetan sailatzea? Anaiak zerikusirik izan zuen? [Gipuzkoako txapelduna da maratoian Iker Maiora]**

Orain urte eta erdi inguru hasi nintzen, aitak eta Josuk [mutil lagunak] zirikatuta. Kontrakoa ematen badu ere, Ikerrek sekula ez nau korrika egitera bultzatu. Beste asko moduan, ni ere egunero-egunero irteten nintzen korrika egitera, eta beti ibilbide bera egiten nuen.



Oker entrenatzen nintzen. Anaiari galdetu nion ea nola entrenatu nintekeen, eta liburu batzuk laga zizkidan, tartean Abel Antonena. *Nola bukatu nire lehenengo maratoi erdia, Zelan amaitu hamar kilometroko lasterketa bat 40 minutuan* eta antzekoak irakurri nituen, baina konturatu nintzen entrenamendu guzti horiek mutilentzako daudela prestatuta. Nik ezin nituen amaitu ere egin, eta etsigarria ere bazen. Horregatik, eta gauzak ganoraz egiteko, entrenatzaile bat hartzea erabaki nuen, mutilari kaso eginda.

Gogoan daukazu zure lehenengo lasterketa?

Hamar kilometroko bat izan zen, Zumaian. Ikerrek [anaiak] lagundu zidan, eta eskerrak, bestela joan ere ez nintzen egingo-eta. Lehenengo maratoi erdia ere Ikerrekin egin nuen.

Zer egiten zaizu gogorren?

Askok galdetzen didate hori, baina niri ez zait gogorra egiten zain-tzea. Betebehar bat baino gehiago bizitzeko modu bat da niretzat, neuk aukeratutako bizitzeko modua. Egia da egun batzuetan kosta

egiten dela, domeketan adibidez. Hamabi ordu lanean egin ostean entrenatzera irtetea ez da erraza, baina entrenatzetik etxera bueltatzen zarenean ikaragarri ondo sentitzen zara. Jatekoa ere zorrotz zaindu behar da, eta hori da beharbada gogorrena. Ez nau obsesioztatzen, hala ere.

Eskiatzen eta beste kirol batzuetan ere jardundakoa zara. Besteek eman ez dizuten zer eman dizu korrika egiteak?

Kirola beti egin izan dut, bai, baina inoiz ez naiz sentitu orain bezain sasoiko. Korrika egiten hasi nintzenetik gogorrago nabil, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Kirola egiteak bizitzari beste modu batean aurre egiten laguntzen du. Bi egun daramatzat korrika egin gabe, zapatuan 23 kilometroko proba bat jokatu nuelako, eta zerbaiten falta sumatzen dut dagoeneko. Korrika egiteko, gainera, ez da beste inor behar, eta hori asko gustatzen zait. Buruari buelta asko ematen dizkiot, eta erabaki asko korrika nabilela hartu ditut. Egia da, hala ere, gogorra ere badela, psikologikoki batez ere, eta horregatik burugogorra izatea oso garrantzitsua da. Nekatuta bizitzen ikasten da. Nik neuk oso zorrotz betetzen ditut jartzen dizkidaten entrenamenduak.

Psikologikoki gogorra dela diozu. Burua ere entrenatu egin behar da?

Bai, jakina. Ni Maiora naiz, hala ere, eta hori abantaila handi bat da, gu oso burugogorrak garelako berez.

Egunean zenbat denbora eskaintzen diozu korrika egiteari?

Pare bat ordu egunean. Pistara joaten banaiz, berriz, gehiago: gutxienez hiru bat ordu, bai. Bakarrik entrenatzen naiz beti, inguruan ez dagoelako nire antzeko mailan dabilen neskarik, eta gizonezkoak gehigo direlako.

Errepidean hasi zinen, baina zuk ere egin duzu jauzia mendiko lasterketara.

Etxean aho batzuk ixteko hasi nintzen mendian korrika, mutil lagunak bakean lagatzeko garbi esateko. Aparteko ezer egin ez dugun arren, beti ibili gara mendian, eta egia da nahikoa ondo moldatzen nintzela. Mendirako egindakoa nintzela esaten zidan beti, eta probatzeko beste mundu hori. Eta nik beti ezetz. Udan, baina, kilometro bertikal bat jokatzea proposatu zidan Etor Mendiak, nire prestatzailer fisikoak, eta Xoxoteko proban izena eman nuen. Kontua da ni oso lehiakorra naizela eta lasterketa batean izena ematen dudanean dena ematen dudala. Probatzera joate hori ez dator nirekin bat. Hirugarren egin nuen han, eta neu ere harrিতa gelditu nintzen.

Lau mendiko proba jokatu eta lauretan podiuma. Ez zaizu iruditzen eskerrak eman beharko zenizkiola mutil lagunari?

Jajaja. Bai, ezta?. Xoxoten hain gustura ibili nintzen Beriaingo kilometro bertikalera eman nuela izena [Bigarren egin zuen, Izaskun Zubizarretaren atzetik]. Gero Mutrikuko kilometro bertikala etorri zen. Ostiral hartan, Elgoibarko gaueko krosa jokatu zen, eta Igor Ezenarrok Arnorako berotu ninduen. Lehenengo neskaentzat ehun

euroko saria zegoela esan zidan, eta bestela ere mendian entrenatu behar nintzenez, probatzea erabaki nuen, zer galdurik ez nuela eta. Txiripaz joan nintzen, eta irabazi egin nuen. Kontziente naiz nik lortu dudana ez dela guztiz normala eta zorte handia izan dudala, baina aitortu behar dut gaizki ohitzen ari naizela.

Zer daukazu orain begiz jota?

Gasteizko maratoi erdia egin nahiko nuke 1:30:00eko denboran. Kilometroa 4:15ean egin nahi dut. Donostiakoan izan nintzen, baina hamahirugarren kilometroan bareak hartu ninduen eta ezin izan nuen denbora horretan amaitu. Erronka horixe jarri diot neure buruari. Eta bestela, ba ez dakit, Aizkorriko maratokia ere gustura egingo nuke. Mendian ondo nabil, eta datorren urtean egiten bada behintzat, saiatuko naiz dortsala lortzen.

Asteburuan, Olatzagutian, estu hartu zenuen Nerea Amilibia handia ere.

Bai. Gustura ibili nintzen. Hirugarren egin nuen, Alicia Olazabal eta Nerea Amilibiaren atzetik, eta, gainera, oso denbora ona egin nuen. Nerea Amilibiak zeukan errekorra (2:17:42), eta denbora hori ontzea lortu dut (2:16:49). Niretzako interesgarriagoa da markak ontzea podiuma egitea baino. Luzeagoa izan balitz, estu hartuko nuen Nerea.

Inguruan bada tentatzen zaituen probarik?

Karakatekoa. Ez diot herriari zatarrik egin nahi, eta jai baldin badaukat joango naiz.

Markaren bat ontzera?

Onena ematera.

Zuen etxean punta-puntako bi korrikalari zaudete. Zelan bizi duzue?

Bai, baina, hala ere, lker beste maila batean dabil. Ezin da konparatu ere egin. Maratoian Gipuzkoako txapeliduna da, eta hori ikaragarria da. Gure etxean beti gustatu izan zaigu mundu hau, eta oso pozik daude denak. *Snow-a*, adibidez, ez dute horren begi onez ikusten, baina hau, bai, eta babes handia daukagu, bai lkerrek eta baita neuk ere.

Mundu bat dabil korrika. Hala ere, neskak gutxiengo bat dira oraindik. Ez zarete bakarrik sentitzen?

Bai. Olatzagutian, adibidez irteeran dena gizonezkoa ikusten nuen. Ilusioa egiten du neskak ikusteak. Neskak badaude, baina goian dabilzanak gutxiago dira. Egia da, hala ere, gizonek asko babesten gaituztela lasterketan.

Zeintzuk dira zure dohainak?

Ez dakit, baina igotzen hobea naiz.

Bereziki gogoan daukazu lasterketa bat?

lazko Behobia. Azkeneko astean lortu nuen dortsala, eta eguraldi txarra egin arren, gustura amaitu nuen. Aurten badaukat dortsala, baina ez dakit egingo dudana. Horrenbeste jenderen artean oso bakarrik sentitzen naiz ni han. Hori bai, animazio aldetik itzela da Behobia.

Eguzkiak, gatzak eta kloroak kalte handia egiten diote gure azalari, eta horregatik, garrantzitsua da udazkenean azaleko tratamenduren bat egitea, azala gazte mantentzeko. Udako gehiegikerien ostean, zure azalak behar-beharrezko du zainketa berezi bat, eta zuk merezi duzu horrenbeste. Udazkena askoz eramangarriago egingo zaizu, gainera, eta zure larruazalak zinez eskertuko ditu. Aldi batez eguneroko errutina ahaztu, eta hartu ezazu txanda edergintza zentro batean. Zaintzea inoiz ez da horren atsegina eta eraginkorra izan-eta!

estetikagehigarria



Uda ondoren zure gorputz eta aurpegiko azala berritzen eta berriro hidratatzen laguntzen dizugu.

P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Olaia
Laser depilazioa

San Inazio, 4 behea
20870 Elgoibar
Telf.: 943 742 725
www.ammergroup.es

Depilazio iraunkorra Lightsheer Diodo laserrarekin
Orain %50 arteko deskontua

EMAKUMEA	Lehen	Orain
Hanka osoak	550 €	290 €
Hanka erdiak	290 €	160 €
Besapeak	80 €	45 €

GIZONA	Lehen	Orain
Bularraldea	290 €	160 €
Bizkarra	450 €	250 €
Lepoa	100 €	50 €

10 sesio 395 € **LPG**



Judith
EDERGINTZA

Errosario kalea,19
Tel.: 943 742 950 / 667 742 118

Mutil zein neska

Astelehenerdik larunbatera (ostiral egurdiotan zabalik)

- Ⓞ Diodo laserra
- Ⓞ Depilazioa (beroa eta hotza)
- Ⓞ Gorputz tratamenduak
- Ⓞ Argaltzeko masajeak
- Ⓞ Erlaxatzeko masajeak
- Ⓞ Dietak
- Ⓞ Aurpegi tratamenduak
- Ⓞ Makillajea
- Ⓞ Betileetako permanentea
- Ⓞ Manikura

BERRIA!

- Ⓞ Gelezko azazkalak
- Ⓞ Pedikura berezia: kailuak, gogoguneak,...



Ederrago eta gazteago

Estetika ez da emakumeen kontua bakarrik. Azken urteotan nabarmen egin du gora gizonezkoen presentziak estetika zentroetan. Bistan da edergintzari gero eta garrantzia handiagoa ematen diotela gizonezkoek. Aurpegiko azala hidratatze hutsa motz geratu zaie askori, eta gero eta gehiago erabiltzen dituzte adinaren kontrako kremak eta esfoliatzaileak. Mutilek ere, hasi diote, beraz, ederrago eta gazteago egoteko borroka.

TABURIK GABE

Iritsi da gizonezkoak estetika zaintzen hasteko garaia. Gaur egun, inolako taburik edo konplexurik gabe erosten dituzte gizonek ere zimurren kontrako kremak, esfoliatzaileak edo begi-zuloak gutxitzekoak. Gizonari ere azal leuna eta ederra edukitzea gustatzen zaio, eta krema hidratatzaile hutsa baino zerbait gehiago eskaintzen dion krema nahiago du.

Kosmetika produktuen jarraitzaile handienak gazteak dira. Bikoteki-dearekin kremak elkarbanatzea

gustatzen zaie haiei, eta estetika jolas moduan hartzen dute. Gorputza izugarri zaintzen dute, elikadura zainduz eta kirola eginez, eta, gainera, ondo jantzita irteten dira kaleara. Adin horretan ez dituzte erabiltzen zahartzaroaren kontrako kremak, eta haien kezkarik garrantzitsuena aknea izaten da.

Aurpegiko tratamendurako krema gehien erabiltzen duen gizona 35 urte ingurukoa da. Ispilura begiratu eta zimurrak ikustea ez zaie gustatzen, eta horren kontrako neurriak hartzen dituzte. Aurpegi leuna eta itxura ederra izateak gizonen autoestimua hobetzen du, eta bizimodua errazten du. Era berean, emakume askok nahiago dituzte estetika zaintzen duten gizonak, eta enpresetan ere hobeto ikusita daude itxura zaintzen duten gizonak.

BAKOITZAK BEREIA

Zahartzaroaren kontrako kremen zeregina azala babestea eta hidratatzea da. Berehalako eragina daukate, eta luzaroan irauten dute, gainera. Egokiena goizetan ematea da,



bizarra kendu ondoren, eta baita gauean ere, oheratu aurretik. Zahartzaroaren kontrako kremak desberdinak dira gizonentzako eta emakumeentzako, eta ez nahastea komeni da. Gizonen eta emakumeen azalak desberdinak dira, eta bakoitza bere erara zahartzen da. Hortaz, bakoitzak bere krema behar du.

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO

ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonentzako zein emakumeentzako



- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak

Errosario kalea, 30 Elgoibar
 Telefonoa: 943 741 492





- **PHOTON** (bizi-energia, prebentsioa, indarberritzea, osasuna eta bizi-kalitatea)
- **MASAJEAK** (kontrakturak kentzeko, terapeutikoak eta lasaigarriak)
- **MEDIKOA** (obesitaterako mesoterapia, simur eta edertasunerako restylane eta mikrobarise eta kuperosiarentsako tc 3000)
- **AKUPUNTURA-NATUROPATIA-DIETISTA**
- **DIDO LASERRA-APL-Neodimio-YAG**
- **ESTETIKA** (depilasioak, manikura, oin tratamendua, tinte iraunkorra, eta betileen luzapena)
- **SPA** (harri bolkaniko, banbu kanabera, pindak, manikura eta oin tratamendua)
- **JANDAKO AZAZKALEN BERRITZEA**
- **GELEZKO AZAZKALAK**
- **AZAZKAL AKRILIKOAK**
- **AZAZKALEN DEKORAZIOA**
- **MAKILLAJE IKASTAROAK**



OSASUN ZENTRO MEDIKU ESTETIKOA ETA SPA

IDOIA ALVAREZ eta JULIA QUINTANA

Jausoro plaza, 1 - Elgoibar - Telefonoa: 943 743 440

FOTODEPILAZIOA



	LEHEN	ORAIN
SUDURPEKOA.....	29 €	19 €
MASAILAK.....	40 €	29 €
BULARRALDEA	199 €	120 €
HANKA ERDIAK + IZTERRONDOAK.....	219 €	120 €
GIZONEZKOEN LEPOA	60 €	39 €
6 sesioko bonoa	311 €	179 €



**%30eko deskontua
I.C.O.N produktuetan
(lakak izan ezik)**

Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 741 864

IPL Fotodepilazioa

Alire estetika

🌀 Zer da fotodepilazioa?

Gustukoak ez diren ileak kentzeko argia erabiltzen duen metodoa da. Laser argia edo argi sakatua (IPL) erabili daiteke. Ilean melaninak argia xurgatzen du, eta folikuluan bero bihurtzen da. Ilea berriz ernetzeko zelulak desegiten dira, eta ile hori ez da berriz hazten.

🌀 Zein da laserraren eta IPLaren arteko desberdintasuna?

Laserra argi zuzena da, eta izpia ondo definituta dago. IPLa zabalagoa eta lausoagoa da; zehaztugabea.

🌀 Zenbat sesio behar dira?

Zonaren eta ilearen arabera da. Gorputzeko ataletan sei sesio behar izaten dira batez beste, eta aurpegian, zortzi.

🌀 Zeintzuk dira kontraindikazioak?

Eguzki asko ez hartzea da garrantzitsuena. Fotodepilazio sesioa egin aurreko 30 egunetan eta sesioaren ondoreneko hamar egunetan eguzkirik eta UVA izpirik ez hartzea gomendatzen da. Ilea melanina estimulatuta izango balu, argia ere xurgatuko luke, eta azala erretzeko arriskua areagotzen da. Fotodepilazioa ezin da egin tatuajeen gainean, lunarretan eta ezta azaleko lesioetan ere. Haurdun dauden emakumeetan edo umeari bularra ematen ari direnetan ere, ez da gomendagarria.

🌀 Noiz da fotodepilazioa egiteko sasoirik onena?

Azala zurien dagoenean. Urria garai ona da, beti ere, 30 egun pasatu badira eguzkia hartu genuen azken egunetik.



🌀 Zein adinekin egin daiteke?

18 urtetik aurrera egitea gomendatzen dugu. Adin horretatik aurrera ez da hormona aldaketarik izaten, eta fotodepilazioak emaitza hobeak ematen ditu.

🌀 Nolako emaitzak lortzen dira?

Depitotal sistemak ileen %80 kentzea bermatzen du. Gertzen diren ileak ia ez dira ikusten; zuriak eta ahulak izaten dira. Kasu gehienetan portzentaje hori gainditu egiten da.

🌀 Nolako izango da nire tratamendua?

Depitotal estetizistarekin elkarrizketa egitea izango da lehenengo pausoa. Ondoren, azaleko zati txiki batean egingo da lehenengo proba. Lehenengo sesiotik aurrera ilerik gabe geratuko da zonaldea, eta ondorengo bi hilabeteetan ez da depilatze beharrik izango. Tratamendua amaitu ondoren, zonaldea ilerik gabe geratuko da betirako.

estetikaalire

Ordutegia: Astulehenetik ostirakera: 09:30-12:00 / 15:00 - 20:00
Astiazkena: 09:30 - 19:00 - Larunbata: 10:00 - 13:00
Upatx zaharra, 1 beheko - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar

URRIKO ESKAINTZA

%50EKO DESKONTUA ZONALDE GUZTIETAN

	LEHEN	ORAIN
Besapeak	55 euro	22,5 euro sesioko
Izterondoak	89 euro	44,5 euro sesioko
Hankak	250 euro	125 euro sesioko
Bizkarra	145 euro	72,5 euro sesioko

Urriaren 1etik 31ra arteko eskaintza.
Alire Estetika zentro kualifikatua da, Depitotal bermearekin.

TRATAMENDUAK: Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak - Depilazio laserra, elektrikoa, argizariakoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hanketako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetika

Arrillagak irabazi du Aiastiako artzai txakur txapelketa

Jose Antonio Arrillagak eta Txiki txakurrak Euskal Herriko arraza libreko artzain txakur txapelketa irabazi zuten. Arrillagak auzoan bertan lortzen duen bosgarren garaipena izan da. Asier Cuevas eibartarrak, bestalde, korrika igoera irabazi zuen 18:35 denborarekin, eta errekor berria ezarri zuen, gainera. Idi probetan Asteasuko Barriolaren idi pareak nagusitu zen, eta bolo txapelketan, Joshua Lizundia auzotarrak irabazi zuen. Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuten arren, asteburu ederra pasatu zuten aiastiarrek. Argazki gehiago eta sailkapenak, www.ElgoiBAREN.net helbidean.



Asier Cuevasen errekor berria ezarri zuen korrika.



Zortzi artzainek eta txakurrek hartu zuten parte arraza libreko artzai txakur txapelketan.



Iñigo Lazkano mendararra izan zen bigarrena, 19:48 denborarekin.



Jose Antonio Arrillagak bosgarren aldiz irabazi zuen Aiastiako artzai txakurren txapelketa.



Eguraldi txarra egin arren, jende asko batu zen Morkaikupe frontoian Haritz dantza taldearen ekitaldia ikusteko.



Ainhoa Lendinez izan zen lehen elgoibartarra emakumezkoetan, 25:22 denborarekin.



Borja Uzuriagaren omenez egin zuen dantza Haritz dantza taldeak.

Dena prest dago 600 elgoibartarrek 6.000 esaera zahar irakurtzeko

Urriaren 8an izango da, Gotzon Garate zenaren omenez

Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra hil zeneko bigarren urteurrenean, esaera zaharren irakurketa publikoa antolatu dute urriaren 8rako Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak, Kutxaren eta Danobat Kooperatibaren babesarekin. Gotzonek berak jasotako 6.000 esaera zahar irakurriko dituzte 600 herritarrek, Udaltxeko pleno-aretoan. Elgoibarko elkarte, erakunde, talde eta norbanakoek hartuko dute parte ekimen horretan, eta baikoitzak hamar esaera zahar irakurriko ditu. Irakurketa publikoa goizeko 9:00etan hasiko da eta arratsaldeko 19:00ak arte irangodu.



'Komediak oroimenean' lana aurkeztuko du Taupadak gaur, Plaza Txikiko Astearen barruan

Taupada antzerki taldeak *Komediak oroimenean* antzezlanaren taularatuko du gaur, 22:00etan, Plaza Txikiko Astearen barruan. Gerra ondorengo denboran kokatzen da antzezlanaren garai hartan, artista-familiak herriz herri ibiltzen ziren beraien abilezia eta sormena erakutsiz, era horretan diru apur bat irabazteko. Magoa, fakirra, pailazoak, abeslariak, dantzariak, malabaristak eta aparteko musikariak izango dira protagonistak.

Ekitaldira joan nahi dutenek Plaza Txikian bertan afaltzeko aukera izango dute. Sanlo elkarteak txosna jarriko du 19:00etatik aurrera, eta bihar goizean ere zabalik egongo da.

Plaza Txikiaren omenezko ekitaldiak joan zen zapatuan hasi ziren, *Mingorance* txarlatanaren saioarekin, eta sekulako euri zaparrada egin bazuen ere, herritar ugari batu ziren Jose Luis Perez Olmedoren saioa ikusteko. Antzolatzaileek esandakoaren arabera, sasoi batean hilero etortzen zen txarlatana feriara, eta garai hartako oroitzenak gogoratu nahi izan zituzten



Mingorance txarlatana zilarrezko zintzilikaria saltzen.

ekitaldian. Umorez beteriko saioa izan zen, eta burusoilei orraziak eta desertuan aterkiak saltzeko gai dela erakutsi zuen Alacanten bizi den madrildar berritsuak. Zapatuko ekitaldian zilarrezko zintzilikariak, orraziak eta fruta saldu zituen.

Ezpata-dantzak hasiko ditu Errosario kaleko jaiak, domekan

Domekan hasiko dira Errosario kaleko jaiak, Ama Birjinaren ezpata-dantzarekin. Iaz berreskuratu zuen Haritz dantza taldeak sasoi batean urriko lehen domekan egiten zen ezpata-dantza, eta aurten berriz egingo dute. 11:30ean izango da, meza nagusiaren ostean. Horrez gain, hilaren 6tik 8ra arteko egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Besteak beste, txokolate jana, salbea, haurrentzako jolasak eta pilota partidak izango dira. (Egitarau guztia, agendan).



Herriko Antzokiko kultur ekitaldiak, 20:30ean

Herriko Antzokiko kultur ekitaldiak 20:30ean hasiko dira aurrerantzean. Lehen 22:15ean izaten ziren, baina Udaleko Kultura Sailak Herriko Antzokiko ekitaldien ordutegia aldatzea erabaki du "herritarrek hala eskatu dutelako". Datorren barixakuan izango da udazkeneko lehen ekitaldia, Los Modernos taldearen *Fo* antzezlanaren. Sarre-rak www.kutxa.net atarian eros daitezke aurrez, edo bestela, egunean bertan txarteldegian. Urriaren 10ean, bestalde, umeentzako *Xirulari Magikoa* saioa eskainiko dute; azaroaren 5ean *Xabineitor* antzelana ikusteko aukera izango da, eta abenduan, Tolosako txotxongiloak eta *Larru Haizetara* antzerkia izango dira.

10 bai, esku pilota bultzatzen



Josu Perea eta Karmel Leon, 10 bai txapelketaren antolatzaileetako bi.

Helburu argia zuten 10 bai esku pilota taldea sortu zuten pilotazaleek: herrian gero eta txapelketa gutxiago antolatzen direla ikusirik, beste esku pilota txapelketa bat antolatzea. “Badira urte batzuk Sallobenteko txapelketa antolatzeari laga ziotela, eta, orain, Sigmakoa, San Migelgoa eta Mendarokoa bakarrik geratzen zaizkigu”, azaldu du Josu Perea, 10 bai taldeko kidea. Horrela sortu zitzaion Plaza Handiko esku pilota txapelketa antolatzeko ideia. “Gainera, urte guztian pilotan jokatu ahal izateko txapelketa sarea osatzea nahi genuen, eta sasoi honetan txapelketarik ez dagoenez, San Bartolome jaien ostean hasi genuen Plaza Handiko pilota txapelketa”, argitu du Karmel Leonek.

Txapelketan hamar bikote ari dira parte hartzen, eta barixakuetan eta domeketan jokatzen dituzte partidak Gipuzkoako frontoi irekirik zaharrenetakoan –Cristobal Elorzaren aginduetara 1751ko maiatzaren 22an bukatu zuten frontoia eraikitzen–. Dagoeneko azken txanpan sartuta dago txapelketa: urriaren 7an jokatuko dira finalaurrekoak, eta urriaren 9an izango da final handia, Errosario kaleko jaien barruan.

Pilotariak gustura ari direla diote antolatzaileek, eta beraiek ere

oso gustura daude txapelketa izaten ari den oihartzunarekin. “Ez genuen uste horrenbeste jende etorriko zenik partidak ikustera. Arrakastarekin harrিতa gaude. Atera ditugun kamisetek ere eskera handia eduki dute, eta guretzat garrantzitsuena dena: pilotan jokatzen ez duen jendeari harra sartu edo inbidia eman diegu, non-bait, eta bat baino gehiagok aipatu digu datorren urterako hasiberrirentzako beste txapelketa bat antolatu beharko genukeela”.

Hamar koadroko frontoiaren alde

10 baikoak ez dira, ordea, txapelketa antolatzearekin konformatzen. Taldearen izenaren atzean dagoen aldarrikapena entzun arazi nahi dute. Hau da, Elgoibarrek 10 koadroko frontoi luzea behar duela. Gaur egun dauden frontoiak baino “luzeagoak eta egokiagoak” Elgoibarri onura asko ekarriko lizkiokeela uste dute. “Batetik, esku pilotan eta palan jokatzekeo ganorazko frontoia izango genuke, eta, bestetik, beste hainbat ekintza antolatzeko bidea emango luke frontoi berri horrek. Herrigunearan eraikiz gero, gainera, horrenbeste lagunek eskatzen duten estalitako gunea izango genuke”.

**Elgoibarrek hamar koadroko frontoia behar duela
aldarrikatzen dute 10 bai taldekoek**

Gotzon Zulaikak Mendiko Lasterketen Euskadiko Kopa irabazi du gazteetan

Maite Maiorak hirugarren egin du Olatzagutiako proban

Mendiko Lasterketen Euskadiko Kopa irabazi berri du Gotzon Zulaika mendarorak, 23 urtez azpi-koetan. Zapatuan jokatu zuen txapelketako azkeneko proba, Olatzagutian. 23 kilometroko ibilbidea osatu zuen 2:13:14ko denboran, eta gazteen artean bera izan zen helmugaratzen lehenengoa. Euskadiko Koparako, baina, Olatzagutian egindakoaz gain aurreko beste hiru lasterketetan batutako puntuazioa hartzen zuten kontuan: Aramotzeko eta Orozkoko mendiko lasterketakoak eta Zumaia Flysch ultratrailera. Aramotzen eta Zumaian lehenengo egin zuen Zulaikak, 23 urtez beherakoen mailan, eta Orozkon, berriz, bigarren. Hala, Mendiko Lasterketen Euskadiko Kopako txapelkunaren maillota jantzi zuen domekan, Olatzagutian.

Hiru lagun Olatzagutiako proban

Gotzon Zulaikaz gain, Maite Maiorak eta Edu Uribe ere parte hartu zuten zapatuko proban. Maite Maiorak sekulako era-



Unai Peña eta Gotzon Zulaika

kustaldia eman zuen (2:16:49), eta hirugarren sailkatu zen Alicia Olazabal eta Nerea Amilibiaren atzetik. Edu Uribe elgoibartarrak, berriz, 2:33:47ko denboran osatu zuen ibilbidea.

Xabi Luaces kataluniarrek irabazi zuen domekan Mendaron jokatu zen auto telegidatuen txapelketa

Ikusmin handia piztu zuen asteburuan Mendaron jokatu zen auto telegidatuen txapelketak. 1/6tt lur rotariko autoen egutegiko azkeneko proba izan zen, Espainiako Txapelketarako puntuagarria, eta guztira, 37 lagunek parte hartu zuten. Zapatuan, entrenamendu libreak jokatu zituzten, eta domekan, finalurrekoak eta finala. Hamabi lagun sailkatu ziren finalerako, eta Xabi Luaces kataluniarrek irabazi zuen. Haren atzetik beste bi kataluniar sailkatu ziren: Jaime Bartoll eta Angel Leiva.

Hemen bertakoen artean Jose Julio Gomez galdakaoztarrak (10.) eta Jon Gonzalez elgoibartarrak (22.) lortu zituzten posturik onenak.



EMAITZAK

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Intza 14 – Lagunak 22 (1. maila)

Lagunak 22 – Beloki 15 (3. maila)

Lagunak 3 – Zazpi-iturri 22 (1. maila jubenilak)

Lagunak 22 – Alde Zaharra 15 (2. maila kadeteak)

Lagunak 9 – Bergara 22 (3. mailako kadeteak)

PALA

Lagunak 25 – Usurbil 14 (3. mailako nagusiak)

Alde Zaharra 16 – Lagunak 25 (3. maila nagusiak)

10 BAI TORNEOA

Basueta-Agirrebeña 22 – Uriona-Portu 10

Karmel-Gerrika 17 – Armueta anaiaxak 22

Xabi-Perea 17 – Ulazia-Arrieta 22

ARETO FUTBOLA

Orioko 1 – Concepto Createch 5 (1. maila)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

16:00 Concepto Createch – La Bellota (1. maila)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

12:00 Txarriduna Elg. – Karibe Zahar (Kad. mut.)

17:30 Beristain Elg. – Ordizia (Jub. mut.)

19:00 Alkorta Elg. – Irungo Gazteak (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Domeka, 3

11:00 Lagunak – Aurrera-Saiaz (1. maila nagusiak)

10 BAI TORNEOA

Domeka, 3

11:00 Karmel-Gerrika / Gaizka-Sahatzu

11:30 Zangitu-Andoni / Karmona anaiaxak

Astlehena, 4

18:00 Xabi-Perea / Txurruka anaiaxak

PALA

11.30 Lagunak – Euskal Jolas (3. maila nagusiak)

Mintxetako pista berriaren inaugurazioa zapatuan

Zapatuan inauguratuko dute Mintxetako pista berria, 14:00etan. Inaugurazioan, Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako kirol zuzendaria eta Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateaz gain, Estatuko krosen antolatzaileak izango dira. Haritz dantzari taldekoek egingo dute agurra, eta zinta ebagi ostean, lasterketa bat izango da. Agintariek lasterketa horretan parte hartzera deitu dituzte herritarrak. 1.078 metroko ibilbidea osatu beharko dute antxitxikariek, eta sari bana izango da marka onena ezartzen duen gizonekoarentzat eta emakumearentzat.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **645 557 141**
- Mutila lanerako prest. Portalak edo baserriak garbiketako edo kontserje lanetarako. ☎ **645 555 265**
- Neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Arratsaldez. ☎ **677 155 611 (Anabel)**
- 32 urteko neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **681 212 449**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 234 612 / 671 476 869**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **666 771 701**
- Neska nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Mutila sukaldari laguntzaile edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Mutila lorezain, sukaldari laguntzaile edo igeltsero lanak egiteko prest. ☎ **688 647 664**
- Neska euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gauetz nahiz egunez. Klinika Laguntzaile titulua dut. ☎ **943 748 209**
- Neska gaztea umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **652 446 228**
- Boliviako bikotea nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Papelak ditugu. ☎ **661 344 028 / 661 343 549**

- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **649 663 091**
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ **665 513 851**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **626 490 986**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **637 966 749**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 025 810**
- Mutila baserrian lan egin, nagusiak zaindu edo sukaldari laguntzaile prest. ☎ **686 077 316**
- Mutil arduratsua nagusiak zaindu, banatzaile lanak edo garbiketak egiteko prest. ☎ **671 368 324**

ESKAITZA

- Pertsona arduratsua behar da etxe batean bi orduz lan egiteko. Asteleheneetik ostiralera, 13:00etatik 15:00etara. ☎ **695 784 765 / 943 744 403 (17:00etatik aurrera)**
- Tabernan lan egiteko pertsona behar da. Astean hogeiru ordu. ☎ **628 528 268**
- Emakumea behar da bi ume zaintzeko. Hogeiru ordu astean. ☎ **696 178 695**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. Mendarokoa naiz. ☎ **687 075 555**

- Hiru edo lau logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699 813 826**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **618 149 535**
- Pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. ☎ **600 221 704**
- Etxea alokatzen dut. Hiru logela eta garajea erabiltzeko eskubidea. ☎ **648 978 370 / 678 803 535**
- Neska gazteak pisua konpartituko luke alokairuan. ☎ **618 149 535**
- Errosario kalean etxebizitza alokagai. 110 metro koadro. Altzariekin. ☎ **943 742 034 / 639 353 331**
- Etxea salgai Elgoibarren P. Muguruz eta etorbidean. Hiru logela, egongela, sukaldaria eta bainugela. Egoera onean. ☎ **943 082 682 / 688 658 183 (Maite)**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Volkswagen Kalifornia T4 furgoneta salgai. 146.000 km. Egoera onean, sukaldaria, harraska, hozkailua. Lo egiteko lau leku. 13.700 euro. ☎ **671 841 563**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. Plaza Handitik gertu. ☎ **672 42 22 37**

BESTELAKOAK

- Jatetxea itxi dugulako, barruko altasi eta tresneria guztia saltzeko premia daukagu: mahaia, aulkiak, hozkailua... ☎ **635 751 642**

CURSO 2010-2011 IKASTURTA
MATRIKULA ZABALIK
MATRICULA ABIERTA

www.udaleuskaltegiak.net

Euskara ikasteko bide zuzena
Tu via al euskara

UDAL EUSKALTEGIAK

DEBATE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Nafarroa Eparantza 2
20870 **ELGOIBAR** • Tel./Faxa: 943 74 27 31
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

4. MAILAKO IKASTAROA

- **Aurrez aurrekoa**
- **Astean bi egunetan**
- **Urria - ekaina**
- **Tutoretza pertsonalizatuak**

MATRIKULA ZABALIK URRIAREN 7ra ARTE

EUSKALTEGIS MUNICIPALES
EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA



• Zorionak, Angel eta Maite, Leire zuen artera iritsi zelako uztailaren 26an.



• Zorionak, **Nahia**, 3 urte egin dituzulako. Gurasoen partez, muxu handi bat.



• **Mari Lutz**, zenbat urte? Bat! Muxu potolo bat izugarri maite zaitugun guztion partez, eta bereziki, Markelen partez.



•• Zorionak, **Manex** Panderero eta soinu artean ondo-ondo pasako zenulakoan, muxu bat.



• Zorionak, **Ander**, datorren asteartean 3 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Nerea**, 8 urte egin dituzulako. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Markel**, urriaren 3an 8 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez, muxu bat.



• Zorionak etxeko dantzari txikiari! Lehen urtebetetze eguna iritsi zaizu! Patxo handi bat etxekoan partez.



• Zein ondo pasatu genuen zure egunean, printzesa! Zorionak, **Joanel** Etxekoan partez.



• Zorionak, **Enara**, asteazkenean 7 urte egin zenituelako. Ondo pasa! Muxu handi bat Oierren eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Leire**, 6 urte egin dituzulako. Muxu potolo bat etxekoan eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Maddi** 5 urte! egun on ona pasatu, Manexen eta etxeko guztion partez.



• Zorionak, **June**, datorren astelehenean 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, amatxo eta aitaxoren partez.




• Zorionak, **Ander**, igandean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Iker eta Javier**, urriaren 1ean eta 4an zuen eguna delako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Nerea eta Ander**, 5 eta 9 urte egin dituzelako. Familiakoan partez, muxu potolo bat.



• Zorionak, tia **Damianal** Zenbat urte? Ez dio axola! Segi horrela! Muxu handi bat Armaxiotarren partez, bereziki Maialen eta Irati.



• Zorionak, **Ane eta Asier**! Iritsi da ilusioz prestaturiko eguna! Zoririk onena hemendik aurrera bikote! Lagunen partez.



• Zorionak, **Angel eta Oscar**, zuen seigarren eta bigarren urtebetetzean. Familiakoan partez.



Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

3 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 1 Garitaonandia-Bidasolo
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Etxeberria (Santa Ana)
- 4 Fernandez
- 5 Yudego
- 6 Zabaleta
- 7 Etxeberria (Errosario)
- 8 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638


Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta


Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



1 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Txikian.

Jolasak

18:00 Aintzinako jolasak

Besteak beste, kanika, kromo eta txapa jolasak. Plaza Txikian.

Erakusketa

19:00 Plaza Txikia

Plaza Txikiko argazkien erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai domekara arte.

Antzerkia

19:00 'Komediak oroimenean'

Fakirra, pailazoak, musikariak... garai bateko komedia antzeztuko du Taupada antzerki taldeak. Plaza Txikian.

2 zapatua

Meza

11:30 Plaza Txikikoen

omenezko saioa

Plaza Txikikoei omenaldia egingo diete, San Bartolome parrokian.

Aisialdia

16:30 Zirko tailerra

Zubibaik antolatuta, malabarista eta orekarien teknikak ezagutzeko aukera izango da. Altzola-ko frontoian.

8 barixakua

Irakurketa publikoa

9:00 Esaera zaharrak

Gotzon Garateren heriotzaren bigarren urteurrenean haren esaera zaharren liburuko esaeren irakurketa publikoa egingo dute 600 herritarrek. Udaletxeko pleno aretoan.

Antzerkia

20:30 'Fo'

Los Modernos taldeak aurkeztuko du Fo antzezlan, Herriko Antzokian.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

- BARIXAKUA 1**
Kanpo-jolasak 17:00
- ASTELEHENA 4**
Pelikula *Ice Age* 17:30
- MARTITZENA 5**
Badminton 17:30
- EGUAZTENA 6**
Eskulanak 17:30
- EGUENA 7**
Hileko jolasa, munduari bira 80 egunetan 17:30



GAZTELEKUKO EKINTZAK

**URRIAN HASI ETA
ABENDURA ARTE
PING-PONG
TXAPELKETA ANTOLATU
DUGU GAZTELEKUAN.**

**IZENA EMATEKO EPEA
URRIAREN 8AN
AMAITUKO DA.
ANIMA ZAITEZ!**

«Un sueño posible»

- 1, barixakua: 22:15
- 2, zapatua: 19:00/22:15
- 3, domeka: 19:00
- 4, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2010. Zuzendaria: John Lee Hancock. Aktoreak: Sandra Bullock, Quinton Aaron, Kathy Bates, Kim Dickens. Iraupena: 130 min.

Michael Oher afroamerikar gazte bat da, eta babesa eta laguntza jasoko du familia zuri batean. Futbol amerikarrean arrakasta lortzeko ahal dena egingo du gazteak.



ERROSARIO KALEKO JAIAK 2010

3 DOMEKA

11:30 Meza eta
ezpata-dantza

Meza nagusiaren ondoren,
Errosario kaleko Ama
Birjinaren ezpata-dantza
egingo dute Haritz dantza
taldekoek. Errosario kalean.

6 EGUAZTENA

12:30 Jaien hasiera

Txapliguak botako dituzte,
eta Ama Birjinari loreak
eskainiko dizkiote.

17:00 Txokolate jana

Baltasar elkarteak eskainita,
Jai Alai taberna parean.

18:00 Sokamuturra

Arnoko zezentxoekin.

7 EGUENA

9:00 Meza

San Bartolome parrokian.

18:00 Pilota partidak

Plaza Handian.

19:00 Errosarioa eta meza
San Bartolome parrokian.

19:00 Mauxitxa txaranga

Kalejira.

20:00 Salbea

Ondoren, luntxa

8 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka

Errosario kalean.

19:30 Igel-toka lehiaketa

21:15 Afaria

Kultur Etxeko sotoan.

9 ZAPATUA

11:15 Pilota partidak

Arribi-Kepa / Lizarraga-Txu-
rruka

12:00 Pilota partiden

finala

10 bai torneoko finala

13:00 Herri kirolak

Nafarroa plazan, Kultur Etxe
parean.



Zerikasi

IKASTAROAK

e-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kontsultatu

Hasiera data: 2010-10-04 / Bukaera data: 2010-10-19

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 257 991

Altzariak zaharberritzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kontsultatu

Hasiera data: 2010-10-05

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 678 840 451 / 615 764 337

Sutan egindako esmaltea

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kontsultatu

Hasiera data: 2010-10-18 / Bukaera data: 2010-11-08

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 740 844

Etxeko PCaren mantenua

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2010-10-18 / Bukaera data: 2010-11-08

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 208 444

Ofimatika aplikazioak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2010-11-15 / Bukaera data: 2011-03-11

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 208 444

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



«Toy story 3»
3, domeka: 16:30

Estatu Batuak, 2010. Zuz.: Lee Un-
krich. Marrazki bizidunak. 103 min.

Andy unibertsitatera joateko presta-
tzen ari da. Hori dela eta, Woody cow-

boy-a, Buzz astronauta eta gainontze-
ko lagunak kezkatuta daude euren
etorkizunarekin, eta errauskailutik libra-
tzeke borrokatu beharko dira.

Erretratu zaharra



1975

Aste honetako erretratu zaharra Maria Jesus Garatek lagatakoa da. 1975. urtean ateratakoa da, San Migel jaietan. Auzotarrek antolatutako jaiak izaten dira Aiastiakoak, eta erretratuan ikusten den bezala, lehen ere umore onean bizi zituzten jaiak. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Josune Galdos, Maria Pilar Aranberri, Edurne Galdos, Mari Karmen Ansola, Eli Gurrutxaga, Beatriz Bernedo, Jesus Mari Azpiazu, Maria Jesus Garate, Julian Loiola eta Jose Mari Azpiazu. **Bigarren ilaran:** Maritxu Aizpitarte, Nieves Loiola (umea: Haritz Ibarluzea), Josefina Zubizarreta, Mertxe Lejardi, Isabel Bernedo, Karmen Zubizarreta, Angeles Zubizarreta, Esther Mugertza eta Kontxi Loiola. **Hirugarren ilaran:** Pedro Mari Garate (†), Maite Loiola, Felix Azpiazu, Valentin Egia, Angelito Olassolo, Jose Antonio Gurrutxaga, Iñaki Oñederra, Antonio Ruiz, Jesus Mugertza, Jesus Mari Txurruka, Fernando Loiola eta Javier Lejardi (†). **Beheko ilaran:** Agustin Ansola, Jesus Mari Lizundia, Jose Mari Irusta, Jose Baltzola, Jose Mari Osoro (†), Esteban Egia, Jose Antonio Ansola eta Juanito Urreisti.




nu-van
 sukaldeak
 denda berria

basarte 3, elgoibar · 943 747414

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

LAGUNAK KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR

ZATOZ GURE ERAKUSKETA BERRIA IKUSTERA!



GEMINIS



499[€]

by GERMANY



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



IKUSKIZUN ESZENIKOAK

Sarrera Salmenta



CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net

LOS MODERNOS: FO

ANTZERKIA

URRIAK 8, OSTIRALA
20:30 ean, Herriko Antzokian



TEATRO PARAISO

TXIRULA MAGIKOA

(7-11 URTE)



URRIAK 10, IGANDEA
16:30 ean, Herriko Antzokian.

